



Esp. zk. SUBV_CON_COMPET/2018/31

Gazteendako jarduerak. Irabazi asmorik gabeko entitateei diru-laguntzak emateko deialdia, 2018.

urtean gazteendako proiektuak edo jarduerak egin ditzaten

Deialdi honen helburua da diru-laguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honen B) letran zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hartutako erabakiaren bidez hasiera batez onetsi baitzen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. (21. NAO on argitaratua, 2006ko otsailaren 17an).**

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA.
2. Organo emailea:	Komunitate Garapeneko Zinegotzi Ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Komunitate Garapeneko Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Diru-laguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa.

B. DIRU-LAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

<p>1. Deialdiaren xedea: Diruz laguntzea 2018. urtean zehar Iruñeko udalerriko gazteen bizi-baldintzak eta kalitatea hobetzera zuzendutako gazteen arloko proiektuak edo jarduerak.</p>
<p>2. Deialdiaren helburua: Gazteek gizarte-bizitzan parte har dezaten bultzatu eta sustatzea, haien antolatze gaitasuna eta autonomia indartuz.</p>
<p>3. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak: Bi modalitate ezarri dira: A) modalitatea: 2018an egitekoak diren gazteen alorreko proiektuak, jarduera edo ekintza ezberdinak edukita helburu komunak eta ebaluazio-irizpide bateratuak dituztenak. B) modalitatea: 2018an egitekoak diren gazteen alorreko unean uneko jarduerak, betiere jardueraren edo jardueren gutzitiko zenbatekoa 2.000 eurotik gorakoa ez bada.</p> <p>Entitate eskatzaile bakoitzak eskabide bakarra aurkezten ahalko du A edo B modalitatean. Iruñeko Udalak diruz laguntzen dituen proiektuak edo jarduerak lehentasunez zuzenduko zaizkie Iruñeko gazteei. Gazte-jardueratzat hartuko dira: - Gazteei (14-30 urte) zuzendutako proiektuak edo jarduerak. - Gazteek antolatutako proiektuak edo jarduerak (antolatzailen batezbesteko adina 14-30 urte bitartekoa bada).</p> <p>Proiektuek edo jarduerak honako helburu hauei men egin beharko diete: A) Arautu gabeko prestakuntza sustatzea gazteen intereseko gaietara heltzeko, 20 ordu edo gutxiagoko iraupena duten proiektu edo jardueren bidez. B) Aisialdiko eta jolaserako jarduerak sustatzea. C) Hausnarketa eta sentsibilizazio-jarrerak sortzea hainbat balio kontuan hartuta, hala nola</p>



elkartasuna, adiskidetasuna eta konpromisoa.

- D) Gazteen mugikortasuna hobetzeko esperientziak sustatzea, gehienez ere Iruñetik bost kilometroko itzulinguruan.
- E) Gazteen boluntarioratza sustatzea.
- F) Gazteen asoziazionismoa eta partaidetza sustatzea.
- G) Elkarbizitza, hausnarketa, eztabaida edota gazteak bizitza sozialean aktiboki sar daitezen sustatzea.
- H) Gizon eta emakume gazteen arteko berdintasuna eta errespetua sustatzen dituzten jarduerak bultzatzea.
- I) Gazteek ohitura osasungarriak eskuratu ditzaten erraztea.
- J) Gazteei zuzendutako jarduera zientifiko eta berritzaileak sustatzea.
- K) Gazteen artean kultura ezberdinen arteko harremana eta elkarbizitza sustatzea.
- L) Komunitate garapena sustatzea.
- M) Arautu gabeko jarduera fisikoa sustatzea.

Berariaz deialdi honetatik at daude, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren (2006ko 21. NAO, otsailaren 17koan, argitaratua) 5. artikuluko baldintzak betetzen ez dituztenez gain, honako proiektu edo jarduerak hauek:

- a) Sexua, arraza, hizkuntza, ideologia, egoera sozioekonomikoa eta abar direla medio jarrera baztertzailak bultzatu edo erreproduzitzen dituzten proiektu edo jarduerak, bai eta xenofoboak eta sexistak izan daitezkeenak ere, pertsonen duintasunaren eta giza-eskubideen kontra doazen neurrian. Halaber, bereizkeriazat joko dira sexu bateko lagunei zuzenduta edo haien parte-hartzea soilik zuzendutako jarduerak, proiektuak edo ekintzak, horien helburua berdintasuna lantzea den kasuetan izan ezik. Ezingo da sexuen arabera bereizi.
 - b) 20 orduetik gorako proiektu nahiz prestakuntza-jarduera arautu gabeak.
 - c) Festak (ezkongabe-festak, afariak eta asteburuko festak... ezta festatzat jo daitezkeen ezin jarduerak ere), kabalkadak, inauteriak eta tankera horretako proiektu edo jarduerak.
 - d) Irakaskuntza arloko proiektu edo jarduerak arautuak, bai eta araututako hezkuntza sistemako materien osagarri diren jarduerak, masterrak eta antzekoak egitea ere.
 - e) Xede nagusia parte-hartzaileen artean kirol arautua sustatzea duten proiektuak edo jarduerak.
 - f) Elizkizunak, mezak, katekesiak eta antzeko proiektu edo jarduerak erlijiosoak; mota horretako jardueratzat hartuko dira erlijio zehatz baten aginduekin bat egiten direnak.
 - g) Ezin izanen dira diru-laguntzen xede izan herritarrei orori irekiak ez diren jarduerak, hala horiek prestatzean nola burutzean. Ez dira jarduerak irekitzat joko horietan parte hartzeko berariazko betekizun gisa eskatzen dutenak elkarre bateko kide izatea edo ikastetxe jakin batean matrikulatuta egotea.
 - h) Iruñeko Udalaren beste finantza-ildoak kontratuen zein hitzarmenen bidez heltzen ahal dieten proiektuak edo jarduerak, edo Udalaren diru-laguntzetarako deialdi berariazkoagoen xede direnak.
 - i) Deialdi honetako oinarrietan zehaztutako helburu, printzipio eta lehentasunekin bat ez datozen bestelako proiektuak edo jarduerak.
 - j) Irabazi-asmoa duten enpresa edo entitateek antolatutako proiektuak edo jarduerak.
- Proiektuak edo jarduerak egiteko epea: 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRU-LAGUNTZEN GEHIENENKO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 51.000 €
Gehieneko aurrekontu-zenbatekoa bi modalitateen artean (A eta B) banatuko da, honela:

- A) modalitatea: aurrekontu-zenbatekoa 36.000 eurokoa izanen da gehienez ere.
- B) modalitatea: aurrekontu-zenbatekoa 15.000 eurokoa izanen da gehienez ere.



Diru-laguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.					
2. Aurrekontu-partida:		80/33702/482090			
3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Gehienez ere honako zenbateko hauek emanen dira, betiere modalitatea zein den: A modalitatea: eman beharreko zenbatekoa, gehienez ere, onetsitako aurrekontuaren % 70 izanen da, eta ezin izanen du 8.000 eurotik gora jo. B modalitatea: eman beharreko zenbatekoa, gehienez ere, onetsitako aurrekontuaren % 100 izanen da, eta ezin izanen du, guztien artean, 2.000 eurotik gora jo. Modalitate bakoitzari esleitutako zenbatekoa modalitate bakoitzean aurkeztu eta sartutako proiektuen edo jardueren artean banatuko da. Modalitate bakoitzean proiektu- edo jarduera-hurrenkera bat ezarriko da, balorazioan lortutako puntuazioaren arabera. A modalitateko proposamenek gutxienez 60 puntu lortu beharko dituzte diru-laguntza eskuratzeko moduan egoteko; B modalitatekoak, 40 puntu. Modalitate bati esleitutako kreditua agortu ezean, geratzen den kopurua beste modalitateari gehituko zaio.					
4. Hainbanatzeko aukera: <input checked="" type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ Baiezkoa bada, nola hainbanatu: Behin aplikatuta hala koadro honen H letran ezarritako balorazio-irizpideak nola banakako gehieneko zenbatekoaren mugak -8.000 euro, A modalitatean, eta 2.000 euro, B modalitatean- aurrekontu-kontsignazioa ez bada aski diru-laguntza guztietarako, modu proportzionalean murriztuko dira diru-laguntza guztiak.					
5. Hainbat urtetarako deialdia: <input type="checkbox"/> BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ Hainbat urtetarako deialdia izanez gero, hainbat urtetako gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egongo dira.					
6. Urtekoak:					
Aurtengo zenbatekoa:	51.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:
Onuradun izan daitezke diru-laguntzaren oinarri den egoeran dauden pertsona edo entitateak, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezain debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta paragrafo honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: BAI EZ

Diru-laguntza eskatzen ahalko dute irabazi-asmorik gabeko elkarte edo pertsona fisiko edo juridikoen taldeek, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:
1. pertsona fisiko edo juridikoen taldeak izatea, edo legearekin bat eratuak izatea eta dagokien erregistroan izena emanda edukitzea eskabidea aurkezteko mugaegunean, betiere indarra duten legeekin bat baldintza hori eskatzen ahal bada. Dokumentazio hori egunean eduki beharko dute.
2. Helbide fiskala Iruñean edukitzea.



3. Irabazi-asmorik ez izatea eta irabazi-asmoa duten entitateen mende ez egotea, ez ekonomikoki eta ez instituzionalki.
4. Deialdiaren xedearekin bat datozen gazteendako jarduketak, jarduerak edo ekimenak egitea.
5. Iruñeko udal-mugar-tean egitea diruz lagundutako programa, proiektu, jarduera edo jarduketa guztiak. Diru-laguntzaren xede den jarduerak, salbuespenez, udal-mugar-tea gainditzeko badu, Udalaren interesen aldekoa izan beharko du, zuzenean edo zeharka, halako moduz non baldintza horrek aski justifikaturik gelditu beharko baitu diru-laguntza eman baino lehen.
6. Iruñeko Udalarekin lankidetzeta-hitzarmenik edo kontraturik sinaturik ez edukitzea, diru-laguntza zein programa, proiektu, jarduera edo jarduketarako eskatu eta horretarako, eta ez jasotzea alor honen edo Iruñeko Udalaren beste edozein alorren diru-laguntzarik, jarduera berberak gauzatzeko.
7. Proposatutako helburuak betetzeko behar bezalako egitura edukitzea jada jardunean, eta horiek lortzeko beharrezko ibilbidea, esperientzia eta gaitasuna egiaztatzea.
8. Egunean edukitzea tributuei nahiz Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak. Pertsona fisiko edo juridikoen taldeei dagokienez, diru-laguntzak eskuratzeko dagokion araudian aurreikusitako ezein debekuk ezin izanen ditu ukitu hala taldea nola ezein kide. Iruñeko Udalak bere kabuz egiaztatuko du tributu-betebeharrak egunean dituztela, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du. Era berean, diru-laguntza emateko proposamena egin aurretik, Udalak ofizios egiaztatuko du onuradunak ez duela zorrik Udaleko Diruzaintzarekin.
9. Pertsona fisiko edo juridikoen taldeen kasuan, banakako erantzukizunpean arituko da kide bakoitza, eta, behar izanez gero, nor bere PFEZren aitortunean diru-laguntza jaso duela aitortuko du.
10. Jarduera guztiak erantzun zibileko aseguruia izan beharko dute.

Aipatutako betekizun guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epearen azken egunean, eta mantendu beharko dira diruz lagundutako jarduerak irauten duen epean.

Diru-laguntzen deialdira aurkezteko argibiderik, laguntzarik, orientaziorik eta aholkularitzarik behar izanez gero, pertsona eta entitateek Gaztediaren Etxeko Aholkularitza Juridikoko Zerbitzura jo dezakete (Zangoza kalea 30), edo Herritarren Partaidetzarako *Zentro. Elkarlaneko guneko* zerbitzura (Kondestable Civivoxa, Kale Nagusia 2, 2. solairua, VIII. aretoa).

Diru-laguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

BAI EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) puntuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, diru-laguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:



Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta letra honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:



BAI



EZ

1. Diru-laguntzaren xede diren helburua bete, proiektua gauzatu edo jarduerak egitea. Jarduera Iruñeko udal-mugartean eginen da (D.1.5. puntuan aipatutakoa salbu) eta hura koordinatu eta egingo dute prestakuntza eta esperientzia egokia eta egiaztatua duten lagunek.
2. Behar bezalako publikitatea egitea, dirua jaso behar duten programak, proiektuak, jarduerak edo jarduketak Iruñeko Udalak osorik edo hein batean finantzatu dituela jakitera emate aldera, betiere betekizun hori kasuan kasuko deialdiak, hitzarmenak edo ebazpenak exijitzen badu.
3. Iruñeko Udalari baimena eta laguntza ematea diruz lagundutako programaren, proiektuaren, jardueren edo jarduketaren garapena hedatzeko, gazteen parte hartzea bitzta sozialean bultzatu eta sustatzeko, haien antolatze gaitasuna eta autonomia indartze aldera. Diruz lagundutako programa, proiektu, jarduera eta jarduketaren harira prestatutako ekintzak, materialak eta hedapen- zein sentsibilizazio-kanpainak juventud@pamplona.es helbidera igorri behar dira, edo, bestela, unitate kudeatzaileak hedapen- eta dokumentazio-zereginetarako ezartzen duen helbidera.
4. Harremanetan eta koordinaturik egotea Komunitate Garapeneko Alorrarekin, Gazterriko Unitatearen bitartez, proiektua garatu bitartean.
5. Organo emailearen aurrean justifikatzea, justifikazio-txostenak aurkeztuta, baldintzak eta betekizunak bete dituztela, bai eta diruz lagundutako programa, proiektua, jarduerak edo jarduketak egin direla eta diru-laguntza zertarako den eta helburu hori bete dutela ere.
6. Men egitea organo emaileak egin beharreko jarraipen- eta egiaztapen-jarduketei, bai eta kontrol-organo eskudunek egiaztatzeke zein finantzaketa kontrolatzeko egiten ahal dituzten beste guztiei ere, betiere jarduketa horien ondorioz eskatzen dizkieten argibideak oro eman beharko dituztelarik, halakoak udal-artxiboetan jasota egon ezean.
7. Diru-laguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortuz gero, horren berri ematea organo emaileari. Bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da jakinarazpen hori, eta betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa frogatu baino lehen.
8. Kontabilitate-liburuak, erregistro eginbidetuak eta gainerako agiriak edukitzea, behar bezala beterik eta eguneraturik entitate onuradunari kasuan-kasuan aplikatzen ahal zaizkion merkataritzako legeek eta lege sektorialek ezarritakoarekin bat.
9. Gordetzea jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak –agiri elektronikoak barne–, egiaztapen eta kontrol jarduketaren xedea izan daitezkeen neurrian.
10. Iruñeko Udalari jakinaraztea diru-laguntza emateko kontuan hartutako inguruabar, betekizun eta baldintzetan gertatzen diren aldaketak oro, eta, behar izanez gero, hari behar den baimena eskatzea.
11. Unitate kudeatzaileari jakinaraztea proiektua garatzen den bitartean entitate eskatzailearen edo eskatzaileen nortasun juridikoan izandako aldaketen berri: estatutuak, entitatearen legezko ordezkaria, etab. Proiektu bat aldatzeko eskabidea aldaketa justifikatzen duten inguruabarrak gertatu eta berehalakoan aurkeztu behar da, eta betiere aldaketak sartu baino lehenago, deialdi honen F) letran adierazitakoaren arabera.
12. Jasotako zenbatekoak itzultzea, hala deialdi honen Q) letran nola Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean adierazitako kasuetan.
13. Proiektuak eta jarduerak egiteko erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea.
14. Betetzea pertsona fisikoak datu pertsonalen tratamenduaren arloan babesteari eta datu horien zirkulazio libreari buruz Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2016ko apirilaren 27ko (UE) 216/679 Erregelamenduan eta diru-laguntza eskatzeko ereduari atxikitako IX. eranskinean ezarritako lege-ohartarazpenak.



15. Beterik izatea Adingabeen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikuluan aurreikusitako betekizuna Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema Aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak adierazten duen eran, baita Boluntarioei buruzko 45/2015 Legearen 8.4 artikuluko betekizuna ere.

16. Justifikaturik izatea diru-laguntza ematean onartutako proiektu edo jardueretako gastuen % 100.

- Behar bezalako publizitatea egiteko betebeharra, jakitera emate aldera Iruñeko Udalak finantzatu dituela diru-laguntza jaso duten programak, jarduerak, inbertsioak edo jarduketak: BAI EZ

Pertsona edo entitate onuradunak laguntza jaso izanaren berri emateko hartu behar dituen neurriak:

Iruñeko Udalaren irudi instituzionala eranstea.

Legendak karteletan, material inprimatuetan, bitarteko elektronikoetan, ikus-entzunezkoetan eta abarretan.

Oroitzapen-plakak.

Aipamenak hedabideetan.

Beste batzuk:

- Diru-laguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluekin bat: BAI EZ

Xede-epa: 29.4 artikulua xede-epa zehazteko betebeharra finkatzen du, zeina ezingo baita izan bost urte baino txikiagoa erregistro publiko batean inskribatu daitezkeen ondasunez bezainbatean, eta bi urte baino txikiagoa gainerako ondasunei dagokienez.

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan	aldaketak	egiteko	aukera:
<input checked="" type="checkbox"/> BAI	<input type="checkbox"/> EZ		

Hasierako proposamena berriz egokitu behar denean jarduerak zein errealitatean garatu behar diren eta horretara, aldaketak egiten ahalko dira proiektua gauzatzean, hasierako aurreikuspeni dagokienez, ustekabeko inguruabarrak direla medio, inguruabar horiek kontuan hartzekoak badira jarduera zuzen betetzeko eta aldaketa horiek ez badute eragiten funtsezko aldaketarik proiektuan.

Aldaketa horiek egin ahal izateko, eskaera arrazoitua aurkeztu beharko zaio diru-laguntza kudeatzen duen Komunitate Garapeneko Alorreko unitateari, aldaketak justifikatzen dituzten inguruabarrak agertu eta berehala eta, betiere, aldaketak egin baino lehen. Aldaketa horiek Komunitate Garapeneko Alorraren oniritzia jaso beharko dute.

Aurreikusi gabeko inguruabarrak direla medio, proiektuan aldaketak egiten ahalko dira prestakuntza-ekintzaren helburuak, jarduerak eta talde hartzailak ukitzen dituzten alderdietan, betiere aurretiko baimena beharko dutelarik. Programa, proiektua, jarduerak edo jarduketak egitean moldaketak egiten badira, Komunitate Garapeneko Alorrak horiek baloratu beharko ditu aldez aurretik, eta diru-laguntza kudeatzen duen unitateak, baimendu. Aldaketak egiteko baimen horiek emanen dira baldin eta eraginik ez badute aplikatutako balorazio-irizpideetan eta diru-laguntza emateko egintzaren norgehiagokan.

Halaber, diru-laguntzaren zenbatekoak eskatutako kopuruak baino gutxiago jotzen badu, proiektua eta proiektuaren aurrekontua finantzazio aukera errealeara doitzeko eskatzen ahalko zaio onuradunari diru-laguntzaren gaineko ebazpena eman baino lehen. Aurkeztutako aldaketak diru-laguntzaren xedea, baldintzak eta helburua errespetatu beharko ditu, eta ezin izanen du jarduketa edo ekipamendu berririk edo hasierako eskabidean sartu ez zirenik erantsi. Aldaketa horiek egiteko, unitate kudeatzaileak entitate



onuradunei jakinaraziko die badutela 5 eta 10 egun natural bitarteko epea horiek aurkezteko. Behin epea amaituta, unitate kudeatzaileak aurkeztutako aldaketak baloratuko ditu, eta emaitzen berri jakinaraziko die entitate onuradunei.

Proiektua garatzen den bitartean entitate onuradunak sartzen baditu deialdi honetan ezarritakoarekin bat aldeztu aurretik baimendu gabeko aldaketak, zilegi izanen da jasotako diru-laguntzak osorik edo hein batean itzularaztea, edo, hala badagokio, diru-laguntza kobratzeko eskubidea osorik edo hein batean galtzea. Proiektuaren barruan hainbat jarduera independente baldin badaude, baldintza horrek soilik eragingo die baimenik gabeko aldaketak izan dituzten jarduerari.

G. ESKABIDEAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskabideak aurkezteko tokia:

Diru-laguntzetarako eskaerak honako toki hauetan aurkeztu ahal dira: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean (Kondestablearen jauregia - Kale Nagusia 2, behe), erregistro osagarrietan (Descalzos k. 72, 2. solairua; Iratxeko Monasterioaren k. 2, behe; Armada etorbidea 2, 5. solairua; Zapatería k. 40, behe; Eslava k. 1, behe) edo, bestela, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan.

2. Eskabideak aurkezteko epea: Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2018ko irailaren 30ean bukatuko. Aipatutako epetik aurreratu aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskabideak interesdunek sinaturik –edo zuzenbidean baliadun den edozein bide baliatuta ordezkari egiaztatzen duen pertsona batek sinaturik– aurkeztu behar dira, deialdi honen I. Eranskineko ereduarekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4) puntuak aipatzen dituen agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldeztu aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoren baten eskuetan badaude, haien ordezkari erantzukizuneko aitortzen bat aurkeztu ahal da indarrean direla egiaztatzeko, eta bertan adieraziko da noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokio, nork eman zituen edo non dauden jasota; hori guztia, betiere, bost urte ez badira bete agiriari dagokien prozedura amaitu zenetik.

Diru-laguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea. Aurrekoan xedatutakoa gorabehera, Udalak edo haren mendeko erakunde autonomoek ezin badute agiriaren bat eskuratu, eskatzaileei eskatzen ahalgo diete hura aurkezteko, edo, bestela, agiria zein betekizuni dagokien eta horiek beste bide batzuk erabiliz egiaztatzeko, betiere ebazpen-proposamena egin baino lehen.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:



- a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak.
- Entitate eskatzailearen legezko ordezkariaren NAN, pasaporte edo antzeko agiriaren kopia.
 - Entitate eskatzailearen Identifikazio Fiskaleko Agiriaren kopia.
 - Elkartearen, entitatearen edo herritar-taldearen estatutuak.
 - Egiaztageria, izaera juridikoa dela-eta dagokien Erregistroan izena emana dutela ziurtatzeko, betiere hori eska badaiteke indarra duten arauekin bat. Baldin eta entitateak Iruñeko Udaleko Hiriko Elkartearen Erroldan izena emana badu, horren ordezkari erantzukizuneko aitortpena aurkezten ahalko da, IV. Eranskinarekin bat.
- b) Erantzukizuneko aitortpena, deialdi honen II. eranskina eredu hartuta, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorra eskatzen dituen betekizun orokorra zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.
- c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko, agiri hauek:
- Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.
 - Eskatzailearen erantzukizuneko aitortpena, ziurtatzeko aipatu betebeharrak eguneratuak dituela. Kasu horretan, diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio aurkez ditzala, 15 eguneko gehieneko epean, adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).
- Udalak ofizios egiaztatuko du interesdunak egunean dituela berarekiko tributu-betebeharrak, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du.
- d) Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen talderen bat bada –horiek publikoak zein pribatuak izaki–, eskaeran berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko diru-laguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuradunatzat joko dira. Nolanahi ere, taldearen ordezkari edo ahalduz bakarria izendatu behar da, eta ahalorde askiatsia eman behar zaio taldeak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.
- e) Aitorpen bat, bertan adierazita beste administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik dagoeneko jasotako diru-laguntzen zerrenda eta eskatutako kopurua, bertan zehaztuz entitateen izena eta jasotako zenbatekoa. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. eranskina). BAI EZ
- f) Eskatzen den diru-laguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duen memoria.
- g) Diru-laguntza zein banku-entitatetan sartu behar den, halakorik egin behar izanez gero, eta horren jatorrizko egiaztageria. Egiaztageri hori eguneraturik aurkeztu beharko da.
- h) Gauzatu beharreko proiektua edo jarduketa zuzen ulertzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein agiri (grafikoak, teknikoak, finantzakoak eta bestelakoak).
- i) Erasmus Plus Gazteak programari atxikitako proiektu europarren kasuan, Gazteriaren Alorreko Espainiako Agentziak onetsitako proiektua aurkeztu beharko da.



Horiez gain, honako agiri hauek aurkeztuko dira:

A modalitatea, proiektuak:

- V. eranskinean jasotako fitxa, diru-laguntza zein proiektutarako eskatu eta hori.
- 2018ko irailaren 15era bitarte gauzatutako proiektuaren zatiari dagokion gastuaren justifikazioa, eta aurreikuspena irailaren 16tik aurrera egiteke dagoen proiektuaren gainerako zatiari dagokion gastuaren zenbatetsitako aurrekontuaren inguruan (VII. eta VIII. eranskinak).
- Parte-hartzaileen eta monitoreen zerrenda, bertan adierazita Iruñean erroldatutakoen jaioteguna eta helbidea, adina eta sexua (zerrenda, 2018ko irailaren 15era bitarte).
- Diru-laguntza jasotzen duen proiektuari egokitu eta irailaren 16tik aitzina egitekoak diren jarduera edo ekintzen justifikazioa aurkeztu beharko da lagundutako proiektua amaitu eta hurrengo 10 egunetan. Gehienez ere 10 orriko memoria, VII. eta VIII. eranskinak eta parte-hartzaileen zerrenda erantsi beharko dira.

B modalitatea, jarduerak:

- VI. eranskinean jasotako fitxa behar bezala beteta, bat diru-laguntza jasotzeko aurkezten den jarduera bakoitzeko.
- Jardueran parte hartzen dutenen eta monitoreen zerrenda, bertan adierazita Iruñean erroldatutakoen jaioteguna eta helbidea, adina eta sexua (zerrenda, 2018ko irailaren 15era bitarte).
- Irailaren 15a baino lehen egindako jardueren justifikazio ekonomikoa (VII. eta VIII. eranskinak). Jarduera bakoitzeko gehienez ere 2 orriko memoria erantsiko da.
- Diruz lagundutako eta irailaren 16tik aitzina egitekoak diren jardueraz bezainbatean, aurrekontuaren kalkulu bat aurkeztu beharko da.
- Irailaren 16tik aitzina egiten diren jardueren justifikazioa azken jarduera edo jarduera-multzoa egin eta 10 egunetara egin beharko da. Horretarako aurkeztu beharko dira gastu-justifikazioa (VII. eta VIII. Eranskinak), parte-hartzaileen sexu eta adinaren araberrako zerrenda, bertan adieraziko delarik helbidea eta jardueraren edo jarduera-multzoaren memoria laburra. (VI. Eranskina)

Oharra: diru-laguntza jaso dezaketen gastuak kalkulatzeko, jardueran parte hartu eta Iruñean erroldatuta dauden lagunei egotz dakizkiekeen gastuak baino ez dira kontuan hartuko.

j) Erantzukizuneko aitortpena, IX. eranskinarekin bat, adierazteko entitateak betetzen dituela Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruz indarrean den araudian ezarritakoarekin bat galdatu beharreko segurtasun-neurriak.

k) Erantzukizuneko aitortpena, X. eranskineko ereduarekin bat, adierazteko entitateak betetzen dituela haurrak eta nerabeak babesteko indarreko legeek ezarritako neurriak.

Agiriekin jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuek, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautotuek diren kopiak.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: (125 puntu gehienez ere):

1. Kalitatea, proiektua edo jarduerak azaltzean: 25 puntu bitarte.
 - Proiektu eta jardueren planifikazioa (10 puntu bitarte).
 - Helburuen, ekintzen eta aurrekontuen arteko koherentzia (10 puntu bitarte).
 - Hizkuntza eta irudi inklusibo, ez sexista eta ez diskriminatzaileen erabilera (5 puntu).
2. Gazteei -14 eta 30 urte bitartekoei- zuzenduta egon eta haiengan eragina duten proiektuak edo



jarduerak: 20 puntu.

3. Gauzatu beharreko proiektuaren edo jardueraren prozesu osoan gazteen jarduna sustatzea; hau da, 14 eta 30 urte bitarteko gazteek antolatu eta dinamizatu dezatela proiektua edo jarduera: 20 puntu.

4. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna aktiboki errazten duten proiektu edo jarduerak: 10 puntu

5. Komunitate Garapenean eragiten duten edo sarean helburu bera duten hainbat entitatearen arteko lana planteatzen duten proiektuak edo jarduerak: 10 puntu.

6. Aisialdirako alternatibak sortzen dituzten proiektu edo jarduerak: 10 puntu.

7. Zailtasun handienak dituzten gazteei zuzendutako proiektu edo jarduerak: 10 puntu.

8. Ingurumen-jasangarritasuna errazten duten proiektu edo jarduerak: 10 puntu.

9. Hausnarketa eta sentsibilizazio-jarrerak sortzen dituzten proiektu edo jarduerak, hainbat balio kontuan hartuta, hala nola elkartasuna, adiskidetasuna eta konpromisoa: 10 puntu.

Diru-laguntza eskuratu ahal izateko, A modalitatean gutxienez 60 puntu lortu beharko dira, eta B modalitatean, 40.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da, ondoan aipatutako pertsonak osatua:

Epaimahaiburua:	Komunitate Garapeneko Zinegotzi Ordezkaria. Ordezkoa: hura ordezkatuko duen beste zinegotzi bat.
Batzordekideak:	
1.	Komunitate Garapeneko Alorreko zuzendaria. Ordezkoa: hura ordezkatuko duen beste zuzendari bat.
2.	Gazteriako teknikaria. Ordezkoa: Komunitate Garapeneko Alorreko teknikari bat.
3.	Gazteriako teknikari bat. Ordezkoa: Komunitate Garapeneko Alorreko teknikari bat.
Idazkaria:	Komunitate Garapeneko Alorrari atxikitako zuzenbideko lizentziaduna

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENAREN JAKINARAZPENEA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskabideen aurre-ebaluazio bat egingen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar dituzten baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) letran aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat egingo du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Komunitate Garapeneko Alorreko Idazkaritza Teknikoa izanen da prozedura bideratzeko organo eskuduna, eta ofizios egingen ditu ebazpen-proposamena emateko behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezko jotzen dituen jarduketak oro.

Komunitate Garapeneko Alorreko Zinegotzi Ordezkaritari dagokio diru-laguntzak emateko prozedura ebaztea.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea:

Iruñeko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 17.4 artikularekin bat, ebatzi eta jakinarazteko epea, gehienez ere, sei hilabetekoa izanen da.

Diru-laguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira



honako hauek: diru-laguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaera ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.
Diru-laguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: BAI EZ
- tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: BAI EZ
- Epea kontatzeko beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berriazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsizat joko da.

K. EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEN PUBLIZITATEA:

Diru-laguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: BAI EZ

Nafarroako Aldizkari Ofiziala eta Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoa.

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Diru-laguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako diru-laguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. DIRU-LAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira diru-laguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) puntuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honi dagokionez, honako gastu hauek ahalko dira diruz lagundu:

- Diru-laguntza jaso dezaketen gastuei dagokienez, Iruñekoak diren parte-hartzaileenak baino ez dira kontuan hartuko. Jarduera bakoitzean onartutako gastu-aurrekontua parte-hartzaileen kopuruarekin zatituko da, eta horren emaitza Iruñean erroldatutako parte-hartzaileen kopuruarekin biderkatuko da (datu hori jaso daitezkeen jardueren kasuan).
- Mantenu osoa behar duten jardueretan (ostatu hartzea eta mantenua barne), gehienez ere 40 euro onartuko dira parte-hartzaile bakoitzeko eta eguneko gastu gisa.
- Joan-etorria beharrezkoa den jardueretan, gehienez ere 3.000 euro onartuko dira gastu gisa entitate eta jarduera bakoitzeko. Kontzeptu hau kontuan izanen da Iruña abiaburu hartuta helmuga den lekurainoko joan-etorrietarako. Bakarrik hartuko dira kontuan programatutako jarduera egoki garatzeko ezinbestekoak diren joan-etorriak (halakotzat hartuko da jarduera prestatzeko egin beharrekoko joan-etorri bat ere). Banakako txarteletan egindako garraio-gastuen kasuan, inoiz ez da ordainduko ohiko tarifa merkeenerako ezarritakoa baino prezio altuagorik; ibilgailu partikularra erabiliz gero, 0,30 euro ordainduko da kilometro bakoitzeko.
- Elikadura-gastuek jardueraren gastuen % 75 joko dute gehienez ere, eta lotura izan beharko dute



jardueraren xedearekin.

Ez dira diruz lagunduko jardueraren guztizko gastuen % 50 baino gehiago jotzen duten inbertsio-gastuak.

Inongo kasutan ez dira onartuko kontzeptu gisa edari alkoholdunak erostea dituzten fakturak.

Arau orokor gisa, elkarteek, entitateek edo pertsona-taldeek haien jarduerak egiteko aurkezten dituzten gastuetan eraginkortasun- eta arrazionaltasun-ekonomikoko irizpideak kontuan hartu beharko dira. Deialdiari heldu dioten elkarte eta entitateek ahalik eta argien azaldu beharko dituzte gastu-kontzeptu ezberdinak, bai eta jarduerak egiteko behar diren gastuen kapitulukako banakapen ordenatua aurkeztu ere. Gastu horiek deialdi honen xedearekin bateragarriak eta jarduera gauzatzearekin proportzionalak izan beharko dute.

Diru-laguntzaren xede diren gastuetan, eskuratzeko-kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

BAI EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere diru-laguntzen xedea izanen:

- Autoen konponketak.
- IATa ordaintzea.
- Tokiko tributua.

2. Diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastuak egiteko epea:

2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

BAI EZ

Ehunekoak:

Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, onuradunak azpikontratua egiten duela ulertuko da, hirugarrenekin ituna egiten badu, diru-laguntzaren xede den jarduera osorik edo zati batean egin dezaten. Diru-laguntzaren xede den jarduera berez egin ahal izateko, onuradunak egin behar dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik kanpo gelditzen da.

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, letra honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta diru-laguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: BAI EZ

Zenbatekoa edo ehunekoak:



Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalen diru-laguntza jasotzea BATERAGARRIA BATERAEZINA da helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Diru-laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izango, berez edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diru-laguntza horien xedea den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izango da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diru-laguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da jakinarazpen hori, eta betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa frogatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Diru-laguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

Konturako ordainketa:

Ordainketa zatikatua:

Ordainketa aurreratua:

Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde zurreraren artekoa:

BESTERIK: Proiektu edo jarduerak egitea errazteko, Iruñeko Udalak ordainketa bakar batean egingen du diru-laguntzaren ordainketa, hala justifikatutako eta egindako jardueri dagokiena nola justifikatu gabe dauden jardueri dagokiena (irailaren 16tik abenduaren 31ra egindakoak, behin eginda justifikatu beharrekoak).

Justifikatu ezean, edo kopuru txikia justifikatuz gero, jasotako kopuruaren eta benetako gastuaren artekoa itzuli beharko da.

Diru-laguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Aurrekoa gorabehera, Udalak bere kabuz kitatzen ahal izanen ditu, alde zurretik, diru-laguntzen onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak, diru-laguntza horiekin, osorik edo parte batean, zor dituzten kopuruak konpentsatuta.

2. Bermeen eraketa:

BAI EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta diru-laguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

Justifikazio-kontua:



Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Honako agiri hauek txertatu beharko dira:

Eskabidea (arauzko eredu)

V. eranskina: A modalitatea, diru-laguntza zein proiektutarako eskatu eta horren fitxa.

VI. eranskina: B modalitatea, jarduera bakoitzaren fitxa teknikoa, behar bezala beteta.

VII. eranskina: Jarduera bakoitzaren balantze ekonomikoa, eta gastuen zein diru-sarrereren egoera-orria.

VIII. eranskina: Ordainagirien zerrenda, egindako gastuen eta loragirien zerrenda, egindako gastuen eta lortutako diru-sarrereren zerrenda izenpetua eta ordenan zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda.

- Udalaren diru-laguntzaz baliatuta egin diren material iraunkor guztien kopia (argitalpenak, kartelak, liburuxkak, ikus-entzunezkoak, etab.).

- Fakturak edo gastuak frogatzeko edozein egiaztagiri baliokide, merkataritzako trafiko juridikoan balioa dutenak edo indar administratiboa dutenak, betiere modu korrelatiboan ordenaturik eta zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera.

- Hartzekodunei ordaindu izana egiaztatzen duten ziurtagiriak.

2018ko irailaren 16tik aurrera egindako jardueren kasuan, justifikazioarekin batera jarduerako parte-hartzaileen zerrenda osoa ere aurkeztu behar da, haien izena, jaiotze-data eta Iruñean bizi direnen helbideak adierazita (jarduera-mota posible egiten duen kasuetan).

Udaleko teknikari eskudun batek sinatutako balorazio-txosten bat aurkeztu beharko da. Bertan espresuki adierazita geldituko da guztiz bete dela diru-laguntzaren xedea, edo, bestela, zein diren justifikazioa onestea eragozten duten akatsak edo inguruabarrak.

Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukirik: BAI EZ

Justifikazio-kontu sinplifikatua.

Gastuaren egiaztapena, moduluka (Ordenantzaren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

Kontabilitate-orrien aurkezpena (Ordenantzaren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

Beste sistemaren bat:



2. Justifikazioa aurkezteko epemuga:

Diru-laguntzak justifikatzeko bi mugaegun ezarri dira:

1. 2018ko urtarrilaren 1etik irailaren 15era bitarte –biak barne– egindako proiektu edo jardueretarako diru-laguntza justifikatu eta, horrenbestez, agiri frogagarriak aurkezteko epea eskaerak aurkeztearekin batera amaituko da.
2. 2018ko irailaren 16tik abenduaren 31ra bitartean –biak barne– egindako proiektu edo jardueren kasuan, justifikatzeko gehieneko epea hamar egun naturalekoa izango da, jarduera bukatu edo proiektuaren azken ekintza amaitu eta hortik aurrera kontatzen hasita.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako diru-laguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –diru-laguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoietako batek ukitzen badu onuraduna, eta letra honetan aurreikusitako gainerako kasuetan.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoia: BAI EZ

- Esku-hartzearen esparruan zer emaitza eta jarduera egiteko konpromisoa hartu eta horiek osoki edo parte batez betetzen ez badira.
- Edozein zio dela medio gastuak egiten ez badira, edo horietan funtsezko aldaketak egiten badira, Iruñeko Udalak organo kudeatzailearen bidez horretarako berariazko baimenik eman gabe.
- Justifikazioa ez aurkezteak edo P.2 puntuan adierazitako epeak behar bezala ez justifikatzeak berekin ekarriko du –aldeztatik aurreratik errekurritzea eginda– kobratze-eskubidea galtzea eta jasotako kopuruak osorik edo zati batean itzuli behar izatea.

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta haien betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka, errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

1. Diru-laguntza emateko aintzat hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, edozein kasutan, deialdi honetan baimendutako kasuetatik at beste diru-iturri batzuk eskuratzen badira, diru-laguntza emateko ebazpena aldatzen ahalko da.
2. Baldin eta benetako gastuak eskaera egitean aurreikusi eta diru-laguntzaren zenbatekoa hasiera batean zedarritzeko baliaitutakoak baino txikiagoak badira, aintzat hartuko da inguruabar hori, eta proportzioan murriztuko da behin betiko eman behar den kopurua (Diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 31.7 artikulua).



T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

<input checked="" type="checkbox"/>	I.	ERANSKINA.	ESKABIDE-EREDUA.
<input checked="" type="checkbox"/>	II.	ERANSKINA. ERANTZUKIZUNEKO AITORPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.	
<input checked="" type="checkbox"/>	III.	ERANSKINA. ERANTZUKIZUNEKO AITORPENA, XEDE BERERAKO DIRU-LAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.	
<input checked="" type="checkbox"/>	ERANSKIN OSAGARRIAK.	IV. eranskina. Erantzukizuneko aitortpena, galdatutako agirien gainean V. eranskina. A modalitateko diru-laguntzaren justifikazioa. VI. eranskina. B modalitateko diru-laguntzaren justifikazioa. VII. eranskina. Balantze ekonomikoa. VIII. eranskina. Ordainagirien zerrenda. IX. eranskina. Galdatu beharreko segurtasun neurriak. X. eranskina. Erantzukizuneko aitortpena, haurrak eta nerabeak babesteko neurriei buruz.	

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*